

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2024ko OTSAILAREN 26a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita laugarren urtean, otsailaren hogeita seian, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2024ko otsailaren 20an afixatua izan zen eta 2024ko otsailaren 20an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	12	
Bozkatzailerak	15	

Hor zirenak:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Pierre, *Betti*, jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DUPUY Maddalen anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxo jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna

Ahalordea: BIBES Jean Paul jaunak ahalordea emana zakon DUPUY Maddalen andereari, DEGUIRAUD Hélène andereak ahalordea emana zakon CURUTCHARRY Antton jaunari, HARISTOY Marie-Agnès andereak ahalordea emana zakon COSCARAT Jean Michel jaunari

Bilkurara ezin etorria jakinarazia zuten: BIBES Jean Paul jaunak, DEGUIRAUD Hélène andereak eta HARISTOY Marie-Agnès andereak

Bilkurako idazkaria izendatu da: MOUSQUES Bernadette anderea

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- Agence France Locale agentziaren Biltzar Nagusirako ordezkariak izendatzea
- Herriko gelen barne araudiaren aldaketaren onartzea
- CDG 64k proposatu Antolakuntza Eta Giza Baliabideen Aholkularitza hitzarmenari 2024ko martxoaren 1ean kideatzea onartzea.
- H 464,465,470 eta 471 lursailen bazterretik doan baserri-bidexkaren desklasatzeko eta besterentzeko erabakia
- Euskal Herriko Turismo Bulegoarekin hitzarmen bat izenpetzea ur, argi eta jariakin mantentze kontratua bere gain har ditzan
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2024ko urtarilaren 23ko bilkuraren bilduma onartu du.

1- 2024-7 DELIBEROA – AGENCE FRANCE LOCALE AGENTZIAKO ELKARGO KIDEEN ORDEZKARIAK IZENDATZEA 5.3 NOMENKLATURA

Ikusirik Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra, eta bereziki 1611-3-2 artikulua;

2024ko otsailaren 26ko bilduma

Deliberatu ondoren, Baigorriko Herriko Etxeak erabaki du:

1. **Marie-Agnès HARISTOY** auzapezordea eta **Jean Michel COSCARAT** kontseilaria izendatzea **Baigorriko Herriko Etxearen** ordezkatzeko (titular eta ordezeko gisa) Agence France Locale - Société Territoriale Agentziaren Biltzar Nagusian
2. baimena ematea Baigorriko herriko ordezeko tituluduna izendatua izan denari beste funtzio ororen onartzeko Agence France Locale agentziako ordezkariaren kariatara (Administrazio Kontseilua, lehendakaritza, lehendakariordetza, eskaintza deialdietako batzordeetako kide tituluduna edo ordezkoa, Zaintza Batzordea, Orientazio Batzordea, etab.), funtzio horiek bere eginkizunekin bateraezinak ez diren neurrian;
3. baimena ematea jaun auzapezari erabaki honen plantan ezartzeko neurri ororen hartzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): / /

2- 2024-8 DELIBEROA - HERRIKO GELEN BARNE ARAUDIAREN ALDAKETAREN ONARTZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak kontseiluari jakinarazi dio beharrezkoa dela herriko gelen barne araudiaren aldatzea.

Jaun auzapezak barne araudiaren proiektua irakurri du eta zehaztu aldaketetarik batek kontuan hartuko duela energia gastuetan parte hartzea, argiaren kostua emendatu delako.

Hemendik aitzina galdatuko da energia gastuetan parte hartzea. Parte hartze horren moldeak zehaztuak dira barne araudiko 5. artikularen II. tituluaren.

Horretarako, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU** du herriko gelen barne araudiaren proiektua
- **ONTZAT eman** du finkatu energia gastuetan parte hartzea

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): / /

3- 2024-9. DELIBEROA - CDG 64K PROPOSATU ANTOLAKUNTZA ETA GIZA BALIABIDEEN AHOALKULARITZA HITZARMENARI 2024KO MARTXOAREN 1EAN KIDETZEA ONARTZEA – 4.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluko kideei esplikatu die Kudeaketa Zentroek kide dituzten elkargoei hautuzko zerbitzuak proposa diezazkieketela, antolaketarako aholkularitza barne.

Karia horretara, Pirinio Atlantikoetako Lurraldeko Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroak proposatzen du antolaketarako eta giza baliabideetarako aholkularitza zerbitzua.

CDG 64k proposatu Antolakuntza Eta Giza Baliabideen Aholkularitza hitzarmenari 2024ko martxoaren 1ean kidetzea onartzea.

Herriko Kontseiluak,

- **ERABAKI du** CDG 64k proposatu Antolakuntza Eta Giza Baliabideen Aholkularitza hitzarmenari 2024ko martxoaren 1ean kidetzea.
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari atxikia den hitzarmena izenpetzeko, baita ere haren obratzeko aurrekontuak,
- **ZEHAZTU du** kredituak aurreikusiak direla kontu-aldian.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 14

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): / 1

4- 2024-10 DELIBEROA - H464, 465, 470 eta 471 LURSAILEN BAZTERRETIK DOAN BASERRI-BIDEXKAREN DESKLASATZEKO ETA BESTERENTZEKO ERABAKIA – 3.2 NOMENKLATURA

Auzapezak jakinarazi du 2023ko abenduaren 23ko deliberoaren bidez H 474, 465, 470 eta 471 lursailen bazterretik doan baserri-bidexkaren zatiaren kentzeko eta besterentzeko proposamena kontuan hartu dela eta inkesta publikoa eginarazi diola Françoise LACON VILLENAVE mandatarari-inkestagileari, 2024ko urtarrilaren 17ko erabakiak hala izendaturik.

Dosierreko dokumentuak irakurri ondoan, eta inkestaren kariatara bildu adierazpenak, oharrak eta eskabideak irakurri ondoan, baita ere mandatarari-inkestagileak atera ondorioak;

Kontsideratuz ez dela eskabiderik izan proiektuaren kontra;

Kontuan harturik mandatarari-inkestagilearen aldeko iritzia;

Zehazturik Jauretxe eta Ascarain jaunek indibisioan eskuratuko dutela,

Horretarako, Herriko Kontseiluak,

- **ERABAKI du** H 474, 465, 470 eta 471 lursailen bazterretik doan baserri-bidexkaren desklasatzea eta besterentzea; 3 a96ca-ko eremua da, **1€/m²ko prezioan**, atxikirik den lursailen maparen arabera.
- **ARDURA eman dio** jaun auzapezari jabe egoiliarak behartzeko baserri-bidexkaren zatia indibisioan eskuratzeko eta beharrezko desmartxa eta formalitateak egiteko, bereziki baserri-bidexken taula eta mapa eguneratzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): / /

5- 2024-11 DELIBEROA - EUSKAL HERRIKO TURISMO BULEGOAREKIN HITZARMEN BAT IZENPETZEA UR, ARGI ETA JARIAKIN MANTENTZE KONTRATUAK BERE GAIN HAR DITZAN – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak esplikatu du Turismo Bulegoaren eraikina Herriko Etxeari atxikia dela eta ekipamendu teknikoak bienak direla.

2024ko otsailaren 26ko bilduma

Jaun auzapezak proposatu du bi aldiz urtean Turismo Bulegoari doazkion kargak birfakturatuak izan daitezen. Esplikatu du kalkulatu direla okupatu azaleraren arabera, hots, 87,49 m² Turismo Bulegoaren kasuan.

Karga horien barne bada: ur eta argi kontsumoa baita ere mantentze kontratuei lotu gastuak (aire girotua, aireztapena).

Horretarako, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU du** Turismo Bulegoarekin hitzarmena izenpetzea
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari hitzarmena izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): / /

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

- Postako apartamenduaren alokatze kontratuaren izenpetzea (1.11.01.24)
- Herriko gelen alokatzea: berogailu gastuen parte hartzearen finkatzea (2.21.02.24)

GAI OROTARIK

I

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Pierre, Betti, jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DUPUY Maddalen anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxo jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna

Bilkuran hartutako deliberoak 7tik 11ra zenbakituak dira.

<u>Auzapezaren izenpedura</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izenpedura:</u>